

Antxiñako fotografixak

Lizargarateko eguna

Urtero letxe, ospatu barri dittue aurrekomendittarrak eta bestelako kaletarrek be **Lizargarateko eguna eta erromerixia**. Abuztuaren 24an izan zan, eguraldi bikain eta jai-giro hobiarekin. Ehun eta berrogeta hamar lagun egon giñan bazkaitten eta egun guztian zihar hara ingurutatukoak beste ehundaka batzuk izango ziran. Zahar, nagusi, gazte eta umiak armonixa ederrian. **Laja gaztia soiñuaz, Lutxurdixo panderuaz eta Oier jazbanaz** majo saiatu ziran ixa eten barik eta ordu askotako jardunian bazterrak animaitten eta astinketan. Sasue bateko **Azaldittako erromerixa** famauak etorri xakun gogora. Hareik be abuztuaren erdi inguruan moldaitten ziran, hainbat herri-tako gazte ugari alkartuaz.

Lehen-go egunekua etzan edozein modutako jaixa izan zan. Izan be, aurten **50 urte** beteten dira **Lizargarateko alkartia** sortu zala. Historixa luzia dako Lizargaratek: Oñati eta Antzuola arteko mugan, Bergara be hurrian dakola, baserri eta benta moduan ezagutu geben 1960ko hamarkadara arte. Makiña bat lagun biziko zan bertan edota pasauko zan handik 500-600 urtian; **Txamao** mitikua, bestiak beste. Azkenengo bizilagunak, **Garaizabaldarrak**, 1964an Elorri-xora fan ziranian, Aurrekomendikoak, euren auzotasun berezixari eusteko, benta zaharrian alkartia sortzeia pentsau euen. Harrezkero hor dihardue garai bateko **errondari ospetsuen** jarraitzailleak, azkenaldi honetan Oñatiko **Lizargarate Trikitixa Elkarte**ko gaztien **ezinbesteko laguntzaiarekin**.

Dana dala, urteurren borobil hori aprobetxauaz, aurten beste ospakizun eta ekintza batzuk be buruketako asmua dago. Lan-talde batek **Aurrekomendiko kontu, pasadizo eta fotografixa zahar-rak** batzen dihardu. Jasotako argazkiekin **erakusketa** bat antolatuko da. Aurrerapen gisa hona hemen pare bat:

Bata Lizargaraten atarata dago 1950 aldera. Ezkerretik eskumara, mutil-kuadrillia agiri da juergan.

Atzekaldian: **Pedro Arregi**, Koixar Azpikua; eta **Bittoriano Kortabarria**, Sarramendikua. Aurrekaldian: **Joxemari Arregi**, Koixar Azpikua; honen bizkar gainian, **Joxemari Zufiria**, Koixkar Garaikua; **Jexus Zufiria**, Koixkar Garaikua, eta **Luis Oñate**, soiñujole txantxiarra.

Bestia, berriz, Koixkarreko ermita onduan ataratakua da hamar bat urte beranduago hango jaixetan. Ezkerretik eskumara eta goitik behera honeik dira ezagutu dittugunak:

Zutik atzian: **Felix Zufiria**, Koixkar Garaikua; **X. X.**; **Jesusa Guridi**, Antzuelas Beittikua; **Sabino Aiaitui**, Koixkar Gaiñekua; **X. X.**; **Joxemari Zufiria**, Koixkar Garaikua; **Mariasun Arregi**, Koixkar Azpikua; eta **Joxe Zugasti**, Antzuelas Goittikua.

Erdixan jarritta: **Juan Esnaola Mendaro**, Antzuelas Etxebarrikua; **Pedro Aiaitui**, Askazubikua; eta **Tomas Jauregi**, Duruangua.

Lurrian jarritta, bigarren illaran: **Bixente Zugasti**, Antzuelas Goittikua; **Maritxu Aiaitui**, Askazubikua; **Joxepin Arregi**, Koixkar Azpikua; **Joxepa Aiaitui**, Askazubikua; **Tomasa Jauregi**, Antzuolakua (?); eta lehenengo illaran: **Maritxu Zugasti**, Antzuelas Goittikua; eta **Santi Guridi**, Antzuelas Beittikua.



J. E.

Argazkixak Koixkar Garaiko Pedro Zufiriak ataratakua dira. Jesusa Guridik jareta, Migel Anjel Kortabarriak eskuratu dosku guri. Argibidiak, berriz, Mariasun eta Joxepin Arregiri nahiz Migel Anjel berari zor dostegu. Milla esker danoiri!